



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Plakak eta plazak

Ni ez naiz euskaldunzaharra. Euskaldun zaharra ere ez dut uste naizenik, oraingoz behintzat. 28 aldiz piztu dira Eguberrietako argiak nire begien parean, urtero desberdinak izan arren urtero berdin ikusten ditugun argi horiek; eta Eguberriak eta maitasuna eta familia eta guk-adina-ez-daukatenezikiko-elkartasuna eta ontasuna eta dindandon-dindandon Eguberri on eta urte osoan ikusi ez dugun horri egindako telefono deia, idatzitako postala edo gutuna edo *whatsapp*-a edo batek daki zer, eta elkarri opariak egiteko premia hori, eta datorren urtean gehiagotan etorriko naiz bisitan eta datorren urtean besteen lekuan jar-tzen saiatuko naiz, Eguberrietako argiak pizten direnero. Eta argiak itzaltzen direnean akabo Gabonak eta maitasuna eta familia eta guk-adina-ez-daukatenezikiko-elkartasuna eta ontasuna eta turroi artean irensten ditugun gainerako tasun guztiak.

Besapeak opariz kargatu-ta harrapatzen gaitu Euskararen Egunak, ostegunez aurten. Eta urte osoan zehar ez bezala kargatzen ditugu agendak ekimenez eta gaztelaraz egiten digun zerbitzariari euskaraz erantzun-go diogu eta Mikel Laboarekin akordatu-gara eta Xabier Leterekin eta Xalbadorrekin eta Durango-ko Azokarekin eta urte osoan zehar akordatzeko ez garen hainbeste gauzarekin ere bai eta gure buruari aginduko diogu baietz, datorren urtean gure hizkuntza ohiturak aldatuko ditugula, beti-beti-beti egingo dugula euskaraz. Baina igaroz abenduaren 3a, Euskararen Egunak itzali zituen argiak eta euskararen ez diren egunak zere-nak diren galdetzea otu zaigu berri.

Ni ez naiz euskaldunzaharra, baina aurten euskaldunberrien izenak jarri dizkiete kaleetako plakei. Halako ahalegina egin eta euskaraz bizitzeko hautua egin dutenen izenak. Baina, noiz uzten dio euskaldunberriak euskaldunberri iza-teari? Uzten al dio sekula?

Euskaldunberritasuna, autoeskolako “L” baten modukoa al da? Orain dela 40 urte euskaraz ikasi zuena, ni baino euskaldun berriagoa al da?

Hizkuntza leku bat da, espazio bat denbora batean, plaza honen modukoa, adibidez. Baina lekuak ez daude geldirik, gurekin batera mugitzen dira, dabil-tzen oinek gastatzen diete zorua eta ohiturak margotzen eta ajatzen, zikintzen eta garbitzen ditu. Hitzak ere ibilian dabil-tza, ajatu egiten dira, zikindu, aterkiak bezala ahaztu eta ustekabean berreskuratzen ditugu eta lokatza kentzen diegu, doinu berriak, usain berriak, musika berriak ematen dizkiegu erabiltzen ditugun aldiro. Kale garbitzaileak dabil-tza Plaza Berrian.

Eta auzoko lagun harekin akordatu naiz, urteak euskalte-gian pasa eta etsi egin zuen harekin. Kontatu zidanean hizkuntza zailaren mitoa etorri zit-zaidan burura baina ezetz esan zidan, ez zela hain zaila; zaila bazen gure errua zela, ka-lean euskaraz hasi eta estrope-zuren bat, zalantza bat su-

matzen genion bakoitzean gaztelaraz erantzuten ge-nionen errua zela, gure lekuak ixten genizkion errua; berak sufri ez zezan edo ohituragatik edo batek daki zergatik. Eta nire estropezu propioak etorri zit-taizkidan gogora, pentsa-mendua hitzetara eta hitza pentsamendura ekarri ezi-na, hitz egiten edo idazten edo pentsatzen edo kanta-tzen dudana bakoitzean hitzak bihurritu, tolestatu, za-baldu eta estutu behar hau; haztamuka ibili behar hau hitzak esanahiz kargatuegi edo hustuegi etorri zaizki-dalako; hitzek ez dutelako nahi dudana esaten eta hitzek nahi dutena esaten bukatzen dudalako batzuetan. Ez dago euskaldunberririk, euskaldunzaharrik ez dago-elako, hizkuntza aldiro de-lako berria, pentsamendua berria den neurrian.

«Konstituzio Plaza» dio Liburutegi Zaharraren pa-reko panelak. «Plaza Berria» esaten diogu askok. Euskararen Eguna pasa zen. Eta, akaso, gure hirietako plakak beharrean, elkarri plazak ematen hasi beharko genuke. •



Iragan urteko Euskararen Eguneko ospakizunak, Donostian.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS